

ZER GERTATUKO DA 11 EGUN HORIETAN?

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra errazagoa izango da euskaraz hitz egitea, asko izango gara, Belarriprest eta Ahobiziak edonon aurkituko dituzu. Lautadako kolektibo, establezimendu eta lantegi asko sustatzaile izango dira, Gasteizen antolatu da, Euskal Herriko 320 herritan antolatu da... Hau masiboa izango da!

ZER LORTU NAHI DUGU?

Gure hizkuntza ohiturak euskarara aldatzea, euskara gehiagotan erabiltzea. Euskarari eustea eta euskarari bide ematea. Belarriprest eta Ahobizi metodologiaren bitartez, euskararen alde egotetik euskaraz egitera pasatu nahi dugu.

NORK ANTOLATU DU?

Eragile sozialen eta instituzioen artean antolatu dugu. Elkarrekin, elkarlanean, Lautadako Euskararen Komunitatea, 8 udalekin eta Lautadako Kuadrillarekin koordinatuta. Lautadan Talde Antolatzaile bat osatu dugu eta Lautadako hainbat herritan batzordeak eratu ditugu.

INFO +

lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51
www.lautada.euskaraldia.eus

Lautadako
Euskararen Komunitatea

Entitateak
8 udalak
Kuadrilla

Ahobizi eta Belarriprest metodologiaren

Entitate

SUSTATZAILEA

www.lautada.euskaraldia.eus

11 EGUN EUSKARAZ

2018KO AZAROAREN 23TIK
ABENDUAREN 3RA



AHOBIZI-BELARRIPREST metodologia

BELARRIPREST

Euskaraz dakienari erraztasunak eman nahi dizkio.
Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Belarriprest txapa eramango du.

Nik euskaraz ulertzen dut. Zuk niri euskaraz egitea nahi dut. Agian, erdaraz erantzungo dizut, baina zuk **egidazu euskaraz.**



AHOBIZI

Euskaraz ulertzen duten guztiekin egin nahi du euskaraz.
Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Ahobizi txapa eramango du.



Ulertzen duten guztiei beti egingo diet euskaraz. Horiek erdaraz erantzuten badute ere, nik **euskaraz jarraituko dut.** Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten diet.

* Izena emateko 16 urte baino gehiago eduki behar da

ZER DA EUSKARALDIA?

Euskaraz ulertzen dutenenek haien eguneroko harremanetan Ahobizi-Belarriprest metodologia erabiltzeko 11 egun. Hori da Euskaraldia.

Euskara jakiteak ez du esan nahi normaltasunez erabiliko denik. Bi faktorek eragiten diote euskaraz dakienari: alde batetik, testuinguruak, hau da, euskara erabiltzeko dauzkan benetako baldintza eta aukerak, eta bestetik, norberaren hizkuntza ohiturak eta bere ingurukoak.

2016tik hainbat herritan antolatutako ekimenak eredu hartuta, 2018an, erakunde publikoek eta eragile sozialek, elkarlanean, proiektio nazionala, babes sozial eta ekonomikoa ematea erabaki dute. **Hizkuntza ohiturak aldatzea** da helburua. **2018an zehar, norbanakoen** hizkuntza ohiturak aldatzeko, *Euskaraldia 11 Egun Euskaraz* ariketa egingo da: azaroaren 23tik abenduaren 3a arte, Ahobizi-Belarriprest metodologia erabiliko da, erabileraren igoera lortzeko metodologia zientifikoa. Herritarrek ahobizi eta belarriprest gisa emango dute izena. Ahobiziek ulertzen duten guztiei euskaraz egingo diete beti; Belarriprestek beraiekin euskaraz aritzeko gonbidapena egingo diete gainontzekoei (euskaraz ulertzen dute eta). Lehen fase horren ondotik, **2019an**, kolektiboek, erakundeek eta enpresek hizkuntza ohitura berriei bide emateko neurriak eta konpromisoak hartuko dituzte.

Lautadako Euskararen Komunitateak zuen entitateari zera proposatu nahi dio:

2018an, Ahobizi-Belarriprest metodologiaren **sustatzaile** izatea. Hau da, zuen kideei izena eman dezaten proposatzea eta Ahobizi edo Belarriprest izateko prestatzea.

Zeintzuk dira entitate sustatzaile izateko eman beharreko pausuak?

1. Proposamen hau zuen entitatearen erabaki-gunean **aztertu** behar duzue eta **erabakia** hartu: sustatzaile izan ala ez izan. Baietz bada **erregistratu** zuen entitatea hemen: <https://lautada.euskaraldia.eus/entitate-sustatzailea>
2. Kideei (langileak, bezeroak...) **adierazi** entitate hau Ahobizi-Belarriprest metodologiaren sustatzaile dela: e-mailez, whatsapppe, sare sozialetan, web gunean, identifikazio txartela sarreran jarrita, argazki kolektibo bat eginda, e-mailaren sinaduran Ahobizi-Belarriprest ikurrak jarrita.
3. Entitateko kideen artean talde eragilea edo **arduradunak** izendatu, Lautadako Talde Antolatzailearekin koordinatzeko eta entitatean metodologiari bide emateko.
4. Kideei **prestatuntza** eskaini Ahobizi edo Belarriprest izateko: 60 minutuko tailer bat eskatu, bideo tutorialak zabaldu, gomendio gida banatu, herri mailan antolatzen diren tailerren berri eman.
5. Kideei proposatu Ahobizi edo Belarriprest gisa **izena eman** dezatela: esku-orriak inprimatu eta banatu, emailez edo whatsapppe, aurkezpen bat egin, aurrez-aurre proposatu.
6. Metodologiaren erabilera **ikusarazteko** eremua (eraikina, gelak, egoitza, denda, tailerra, lantokia...) prestatu: kartela gomendioekin, Ahobizi-Belarriprest ikurrak.

NORTZUK DIRA EDO IZANGO DIRA METODOLOGIAREN SUSTATZAILE LAUTADAN?

Lautadako Kuadrillak, 8 udalek eta 42 Batzar Administratibok beren erabaki-guneetan onartu dute sustatzaile izatea. Lautadako hainbat entitate pribatu erabakitzekeo prozesuan daude. Azarora arte handitzen joango den komunitatea osatuz joango gara.

Lautadan, Ahobizi-Belarriprest sustatzaile izango diren entitateei Lautadako Euskararen Komunitatearen kide izatea proposatuko zaie.